

Energia-hornidurak bermatzeko babes- eta laguntza-neurri osagarriak

AENKOMERek, Arabako merkataritza eta zerbitzuetako enpresaburuek, energia-hornidurak bermatzeko babes- eta laguntza-neurri gehigarriak helarazten dizkizuegu.

✓ **Etxeko kontsumitzaileak hornitzeko segurtasuna**

Lehen etxebizitzan energia- eta ur-horniduren bermea zabaltzen da alarma-egoerak irauten duen bitartean. Errege Lege Dekretuak debekatu egiten du etxeko kontsumitzaileei ohiko etxebizitzan kanalizatutako uraren, elektrizitatearen, gas naturalaren, gas manufacturatuen eta petrolio-gas likidotuen (PGL) hornidura etetea.

Alarma-egoeran emandako denbora ez da zenbatuko aurretik hasitako argi-, ur- edo gas-hornidura eteteko prozeduren epeen ondorioetarako.

✓ **Gizarte-bonua zabaltzea COVID-19aren ondorioz**

COVID-19aren agerraldiaren ondorioz jarduera eten duten edo fakturazioa % 75 murriztu duten langile autonomoek baliatu ahal izango dute bonu sozial elektrikoa.



Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresariak
Empresarios y Empresarias de Comercio y Servicios de Álava

✓ **Autonomoentzako eta ETEentzako fakturak etetea**

Autonomoen eta ETEen kasuan, elektrizitate- eta gas-fakturak eten ahal izango dira, eta alarma-egoera amaitu ondorengo sei hilabeteetan ordaindu.

Era berean, energia elektrikoaren eta gas naturalaren merkaturatzaileek diruzaintzaz handiagoak beren gain har ez ditzaten, ordainketak eteten dituzten erabiltzaileei lotutako garraio- eta banaketa-sareetarako sarbide-bidesariak ordaintzetik salbuetsita daude.

✓ **Argi- eta gas-kontratua, malgua autonomoentzat eta enpresentzat**

Gobernuak, halaber, autonomoentzako eta enpresentzako elektrizitatea eta gasa kontratatzeko baldintzak malgutzen ditu, eta horiek beren kontratuak aldatu edo aldi baterako eten ahal izango dituzte, kosturik gabe kontratatutako potentzia eta emariak murrizteko aukera barne.

Aldaketa horiek guztiak bost egun naturaleko gehieneko epean egin beharko dira, eskatzen direnetik, eta ez dute kosturik izango erabiltzailearentzat.

Gobernu zentralak hartutako erabakietarako esteka::

<https://www.miteco.gob.es/es/ministerio/medidas-covid19/>